

Delia Lopez eta Asier Urrutia gara eta Teknologia Jasangarriaren aldeko Urola Aktiboa taldeko kideak gara. ekologistak martxan ordezkatzeko ari gara baita ere.

ordezkatzeko ari garen pertsonen izenean eskerrak eman nahi dizkiogu azpeitiko udalari gaur hemen gure mozioa aurkezteko aukera emateagatik.

Sarrera bezala alkateak aipatu zituen hitz batzuk ekarri ditugu, geuk ere guztiz bat egiten dugularik: “baliabide naturalak egunez egun xahutzen ari gara, eta horri irtenbidea bilatu behar diogu lehen bait-lehen”. Honekin ulertu nahi dugu energiarekin eta energia-kontsumoarekin erlazionatzeko beste modu batean sinisten duela eta kontzientzia duela azpeitiko udalak.

Baina zer pasatzen ari da haririk gabeko 5G teknologiarekin?

Energia ikuspegi batetik eta materialen edo lehengaien ikuspegi batetik, posible al da ba 5g-k suposatzen duen salto teknologikoa gauzatzea?

Dauzkagun datuei begiratuta guk uste dugu ezetz, ez dela posible.

Erakunde zientifikoek 5G energia-xahutzaile gisa aurkezten dute, aztarna ekologiko digitalak bere puntu gorena lortuko du; elkarri lotutako milioika telefono eta gailu berri, antenak, datu baseak, serbidore erraldoiak, sateliteak eta abar fabrikatzeko eta elikatzeke energia kontsumo globalak ikaragarri gora egingo du nahitaez. energia ikuspuntutik kablerik gabeko teknologiak kable bidezkoak baino 10 aldiz gehiago gastatzen du.

5Ga ezarriz gero, ez ote luke areagotuko sartuta gauden krisi energetiko hau?

Datuei begiratuta, guk uste dugu baietz, nabarmen areagotuko duela.

Benetan pentsatzen al dugu gizartean dauden arazoak 5Garekin konponduko direla?

Aurrerapen soziala aurrerapen teknologiko honekin nahasten ari gara. erabaki politiko baten aurrean gaude, interes jakin batzuei erantzuten diena. Kritikapean jar daiteke, eta jarri behar da ezarri baino lehen.

Herriz herri lehenik eta lurraldez lurraldez ondoren, hausnarpen sakona egiteko eta ikerketa independenteak egiteko moratoria eskatzen dugu.

Kapitalismoaren pentsakerak argi dio zein den etorkizuneko teknologia: orain 5g, gero 6g, 7g,...

Sarreran aipatutako “baliabide naturalak xahutzen ari gara” ikuskeraren haritik jarraitu ezean, moratoria hau onartzea adibidez, eta aldiz, kapitalismo teknologikoa markatzen ari den bidea jarraituz gero, “berde” eta “guztiontzako” gisa saltzen diguten prozesu honek energia krisia eta krisi ekosoziala areagotuko dituela asumitzeko prest gaude?

Teknologia honen **beharrezkotasuna** ez da ebaluatua izan, hausnartua, kritikatur. Ez da egin arriskuen balorapen bat, zentzuzko erabilpenik ez da bultzatu, ingurumen-ebaluaziorik ez da egin, eztabaida publikorik ere ez da egin, jakinik aldaketa honek gure bizitzako esparru guztietan eragingo duela.

Balitzko abantailak eta balitzko arrisku eta desabantailak balantzan jarrita, ez ote da zentzuzkoa 5g-ri “geldi” esatea?

Moratoria eskatzeko hau ez da arrazoi bakarra:

Osasunerako arriskuak ebaluatu behar dira, arriskuak benetakoak direlako. Argitalpen zientifiko ugari daude, meta-analisiak eta berrikuspenak barne, eta erakusten dute haririk gabeko telekomunikazioen erradiazio elektromagnetikoek ondorio biologiko kaltegarriak dituztela. Ondorio horien artean daude tumoreak izateko arriskua handitzea, zelulen estresa, radikal libreak areagotzea, kalte genetikoak, gizonen antzutasuna, desordena neurologikoak eta abar. Kalteak landareetan eta animalietan ere gertatzen dira noski. Ondorio horiek guztiak gaur egun daukagun teknologiarekin ari dira gertatzen, eta 5Garen hedapenarekin erradiazio horiekiko dugun esposizioa ikaragarri haundituko da. Pentsa zer ondorio ekarriko dituen!

Biologikoki, denok eletrosensibleak gara. Eta honetaz gain, gero eta populazio elektro-hipersensibleagoa dago, eguneroko bizitza aurrera ateratzeko zailtasun asko dituztenak, gure ingurunean erradiazioa eta eremu magnetikoak handitu direlako era esanguratsuan.

Osasun mentalari dagokionez, nomofobia dutenen gizartearen portzentaia oso oso altua da (angustia, mobilarekiko abstenentzia sindromea).

Zalantzan jartzen ditugu ICNIRP erakundearen segurtasun-mugak.

ICNIRP da erradiazio ez ionizatzailearen babesarako nazio arteko batzordea. Zalantzan jartzen dugu ICNIRP-en independentzia, lobby-ek baldintzatzen dutelako erakunde hau eta ez dituelako aintzat hartzen europako erakunde publikoen eta komunitate zientifiko eta mediku-komunitatearen ohartarazpenak.

Zientzian konfiantza dugu, elektromagnetismoaren kutsadura ugaritu zenetik ehunka ikerketa zientifiko egin dira eta mundu mailako erakundeek emandako abisuak ere hor daude: esaterako europako parlamentua, Espainako herri defendatzailea, STOA, Holandako osasun kontseilua...

Teknologia horren kaltegabetasunari buruzko adostasun zientifiko ezaren aurrean zuhurtzia-printzipioa aplikatzeko eskaera egiten dugu.

Eta europako parlamentuaren 1815 ebazpena betetzea eskatzen dugu, Espainiak, Eusko Legebiltzarrak, eta Gipuzkoako Batzar nagusiek ratifikatur. Ebazpen honek dio gaur egun aplikatzen ari diren segurtasun mugak zaharkituak daudela, eta beste batzuk aholkatzen ditu. Gure taldeak egindako neurketen arabera, Azpeitiko zenbait puntutan muga horiek nabarmen gaunditzen dira.

Beste arrazoi bat:

Etengabeko inbertsio beharrengatik teknologia hau oso esku gutxitan geratzen ari da. Botere teknologikoa kontzentratzen ari da, oligopolioak sortzen ari dira, eta horrela, beren potere politikoa handitzen ari da. Hau da joera. burujabetza teknologikoaren garapenerako arrisku bat da.

Herritarrok bizitzako arlo garrantzitsuetan erabakitzeko geneukan ahalmen urria galtzen ari gara. Eta arrakala digitala gehiago sakontzen ari da.

Jende guztiaren alfabetatze digitala eta interneterako sarbide unibertsala bermatu eta finantzatu beharrean kontrakoa egiten da, oligopolio horien errentagarritasuna bilatzen delako, arrakalan sakonduz.

Moratoria benetan planteatu: ikuspegi eko-sozial batetik, arrakala dagoen bitartean ezin da beste teknologiarik hedatu. aurrena, goazen iristera herrigune guztietara eta maila ekonomiko guztietara.

Arrazoi honen harira, azpimarratu nahi dugu mozioan Udalari eskatzen zaion 4. konpromezua, Telekomunikazioen Lege Orokor berriari dagokiona:
Herritarrok babesgabetasunean aurkitzen garelako lege honen aurrean.

Lege honek urratu egiten ditu konstituzioan jasotako ingurumen-, osasun- eta pribatutasun-eskubideak, Lege honek urratu egiten ditu autonomia-erkidegoek eta udalek herritarren partaidetzarako eta gardentasunerako dituzten eskumen jakin batzuk.

Lege honek telekomunikazioak liberalizatu eta des-arautu egiten ditu, alde aurreko baimena eskatzea eragozten baitu. proiektuen edukia konfidentzialtzat jotzean, ezin da jakin non jarriko den 5g antena bat, edo herri osoan zehar jarri beharko diren base estazioak.

Ezgaitzen du Konstituzioaren viii. tituluan, Tokiko Autonomiaren Europako Gutunean eta Tokiko Erregimenaren oinarritzko Araudian ezarritakoaren aplikazioa, udalerriek eskumen propioak baitituzte hirigintzaren, osasunaren eta ingurumenaren arloan. Ezgaitzen du, besteak beste, osasun publikoari buruzko urriaren 4ko 33/2011 lege orokorrean aitortutako osasun-zaintzari buruzkoak.

Zer nahi dugun eta zertarako nahi dugun denon artean erabaki beharko genuke. Azpeitiko Udalak zer egingo du lege honen aurrean?

Beste arrazoi bat: segurtasuna.

Gauzen eta pertsonen internetaren sorrerarekin, segurtasun zulo asko irekiko dira.

Hiperdigitalizazioaren presentziak logika algoritmikoan eta bigilantziazko kapitalismoan oinarrituko du gizartea, askatasuna baldintzatuz. Datu guztiak telekomunikazioen multinazional handien menpe jarriko dira, gizartea hauskorrago bihurtuz. Empresa pribatuak algoritmo opakoak erabiltzen ari dira

beren helburuak lortzeko. Kontrolik ez dagoenez, ez dago etikarik ez legerik mundu hau arautzeko.

Maila ekonomikoan, teknologia honek kontsumo-ziklo berri bat justifikatuko du, eta horrek ez digu zoriontasun handiagoa ekarriko; aitzitik, ludopatia mota gehiago sortuko ditu, eta herritarren pentsamenduak eta borondateak gehiago kontrolatuko ditu; zalantzarik gabe, deshumanizazioa ekarriko du. Bada garaia garapen teknologiko handiek ekonomia, gizartea eta biosferarekin duten harremana birmoldatzeko.

Ezinbestekoa da galdetzea:
zein mundutan bizi nahi dugu?

Gizarte hiperdigitalizatua, robotizatua, bigilatua, kontrolatua eta manipulatua edo giza harremanak, zaintzak eta guztion ongia nagusi diren gizartea?

Planetako lehengai energetiko eta mineralak agortzen ari garen honetan, nahi ta nahi ez deshazkunderuntz goazen garai hauetan, trantsizio energetikoak energia berriztagarria biltzeko eta biltegiratzeko-teknologiak eskatzen ditu, baita energia gutxi erabiliZ zerbitzuak eskaintzen, ekoizten eta bizitzen dakiten pertsonak ere. 5Ga benetan behar dugun teknologiarako oztopo bihur daiteke.

Teknologiaren alde gaude, baina teknologia biobateragarri, iraunkor eta benetako berde baten alde. 5Ga ez delako horrelakoa, nahiz eta beren propagandak hala aldarrikatu.

Denbora eskatzen dugu sakonki aztertzeko, herria antenekin, base estazioekin eta dispositibo anitzekin bete baino lehen eta herri osoko bazterrak erradiazio elektromagnetiko artifizialenpean utzi baino lehen.